

LEHERKETA. Ustezko etakide bat hil zen atzo arratsaldean, Torreviejan (Alacant) eskuartean zuen lehergailuak eztanda egiterakoan. Guardia Zibilak ustez harekin zegoen bigarren pertsona baten bila dabil.


Ustezko etakide bat hil da Torreviejan, lehergailu bat manipulatzaren ari zela

Espainiako Barne Ministerioaren arabera, baliteke Olaia Castresana etakidea izatea leherketan hildakoa



MORELL / EFE

Olaia Castresana zegoen apartamentua guztiz suntsitu zuen leherketak.



- 1.- Leherketa arratsaldeko 17:30ean izan zen. Torrevieja (Alacant) herriko Playa de la Matako Puerto Romano etorbideko etxadi batean. Guardia Zibilaren arabera hildakoa Olaia Castresana gazte donostiarra da.
- 2.- Guardia Zibilak gas leherketa izan zela aurreratu zuen leherketaren benetako arrazoiak ezkutatzuz, hildakoarekin batera omen zegoen Anartz Oiarzabal atxilotu ahal izateko.
- 3.- Benetako bertsioa 22:00 arte ez zuten eman.

ALLEDE

Erredakzioa | DONOSTIA

Ustezko etakide bat hil zen atzo arratsaldean, Torreviejan (Alacant), lehergailu bat manipulatzaren ari zela eztanda egin zionean. Espainiako Barne Ministerioak lerro hauek idazterakoan aurreratu zituen datuen arabera, litekeena da hildakoa Olaia Castresana Landaberea ustezko etakidea izatea.

Leherketa arratsaldeko 17:30 inguruan gertatu zen, Torreviejako Puerto Romano hiribidean, apartamentuz osatutako hirigune batean. Guardia Zibilaren arabera, titadinez —dinamita— osatutako lehergailu bat zuen esku artean hildakoa, leherketa gertatu zenean. Gorpua guztiz suntsituta gelditu zen, gerritik gora. ETAk iragan martxoan Grenoblen lapurtutako dinamita izan daitekeela uste du Guardia Zibilak, eta lehergailuak bi kilo dinamita inguru zituela zabaldu zuen.

Ezbeharra arratsaldean gertatu bazen ere, Guardia Zibilak ez zuen horren berri eman iluntzea arte. Bost orduz ezkutatu zuten berria. Denbora bitarte horretan, leherketa, gas deflagrazio baten eraginez gertatu zela zabaldu zuten. Guardia Zibilak emandako informazioaren arabera, horrekin denbora irabazi nahi izan zuten Anartz Oiarzabal Ubierna Olaia Castresanaren pisukide eta mutil-laguna bilatu eta atxilotzeko. Iturri polizialestatik adierazitakoaren arabera, Guardia Zibilak uste du leherketaren unean Oiarzabal Castresanarekin zegoela eta ihes egin zuela, eta hori argudiatuta jardun zuten haren bila.

Guardia Zibilak gaueko 11:30 inguruan Madrileko matrikula faltsuak zituen auto bat aurkitu zuen, leherketa gertatu zen lekutik hurbil. Ustez etakideek bertara iristeko erabilitako autoa da.

BERRIA ATZERATU

Guardia Zibilak ez zuen leherketaren arrazoiak ezagutarazi, bigarren pertsona baten bila ibili zelako

BI KILO DINAMITA

Eskuartean zuen lehergailua bi kilo dinamitaz osatuta zegoela dio Barne Ministerioak

Guardia Zibilak kontrolak jarri zituen Torreviejako eta Alacanteko errepide nagusietan, eta operazioak irekita jarraitzen du.

Zazpi zauritu

Leherketaren eraginez, Castresana aurkitzen zen apartamentuko kristalak puskatu eta horma zatiak askatu egin ziren. Zati horiek behean dagoen igerileku batera erori ziren, eta han bainu bat hartzen ari ziren zazpi lagun zauritu ziren. Horietako lau haurrak zirela zabaldu zuen atzo Barne Ministerioak.

Zazpi zaurituak inguruko erietxe batera eraman zituzten, eta eraikinean zeuden beste bizilagun guztiak kanpora aterazi zituzten, beti ere gas leherketa bat izan zenaren bertsioarekin jarraituz.

Leherketaren indarrarengatik apartamentua bera guztiz suntsituta gelditu zen, eta eraikinaren kanpoko hormetako bat ere behera erori zen.

Lekukoaren arabera, leherketaren eztanda urrunetik entzun ahal izan zen.

ETAKO «kide legala»

Guardia Zibilak atzo emandako datuen arabera, Castresana ETAKO «kide legala» zen; alegia, Poliziak fitxatu gabe zegoen. Hala ere, kale erasoekin lotutako sumarioetan agertzen zela adierazi zuten.

EGUNKARIAK jakin ahal izan duenez, Olaia Castresana Donostiako Alde Zaharrean jaio bazen ere, azken urteetan Gros auzoan bizi zen. Castresanak 22 urte zituen.

la urtebete Boluetako leherketatik

Ia urtebete pasa da ETAKO beste lau kide modu beretsuan hil zirela, Bilboko Bolueta auzoan. Iazko abuztuaren 7an auto batean lehergailua zeramatera Patxi Rementeria, Ekain Ruiz, Urko Gerrikagoitia eta Zigor Aranbarri hil ziren, zeramaten materialak eztanda egitean.